

TXOSTENA: JARDUERETAN EMANDAKO AURRERAPAUISOAK

1. SEIHILEKOA



elika 2011

AURKIBIDEA

1. IKUSPEGI OROKORRA

- 1.1. Aginte Taula
- 1.2. Emaidza esanguratsuenak

2. EMAITZA ESANGURATSUENAK: JARDUERAK

- 2.1. Arriskuak Balioztatzea
- 2.2. Elikakatea
 - 2.2.1. Abeltzaintza
 - 2.2.2. Animalien Elikadura
 - 2.2.3 Elikagaien industria
 - 2.2.4 Arrantza eta Akuikultura
- 2.3. Elikagaien Segurtasuna Aztertzea
- 2.4. Zaintza teknologikoa

3. EMAITZA ESANGURATSUENAK: BARNE KUDEAKETA-ANTOLAKETA

- 3.1. Pertsonak
- 3.2. Interes taldeak
- 3.3. Barne hobekuntzarako prozesuak
- 3.4. Ezagutza kudeatzea
- 3.5. Gobernu arduratsua
 - 3.5.1. Erantzukizun Sozial Korporatiboa
 - 3.5.2. Arriskuak Kudeatzea
- 3.6. Ekonomia eta aurrekontuaren bilakaera

1. IKUSPEGI OROKORRA

Lehenengo seihileko honetan aipagarriak dira interes taldeekin egindako bilkurak. Horien helburua izan da ELIKA erakundea zeharkakoa eta parte-hartzaileagoa izatea. Gainera, erakunde horren barruan interes taldeen ikuspegia izango da eskaintzen ditugun zerbitzuen erreferentzia.

Hori dela eta, seihileko honetan zubiak eraiki nahi izan ditugu gure interes taldeekin etengabeko elkarriketak izateko, elikagaien segurtasunarekin zerikusia duten gaiak aztertzeko. Horrela, proaktiboagoak izango gara, ezagutza transmitituko dugu eta komunikazio jariakorra eta jarraitua ezarriko dugu euskal nekazaritzako elikagaien kateko eragileekin.

- Honako 4 lan batzorde hauek osatu dira: **Animalien Elikadura, Abeltzaintza, Elikagaien Industria eta Kontsumitzaileak**. Sektoreak ordezkatzeko dituzten elkarteek, sindikatuak, federazioak, eragileak eta abarrek osatzen dituzte lau batzorde horiek.
- ELIKA onartu egin dute FOARSEren (**Enpresaren Gizarte Erantzukizunerako Arabako Foroa**) Aholkularitza Kontseiluan kide gisa parte har dezan. Gizarte Erantzukizuna honela definitzen da: enpresek borondatez eta modu aktiboan laguntzea gizartea, ekonomia eta ingurumena hobetzen.
- ELIKA finkatu egin da Interneten eta areagotu egin du bere presentzia multimedia plataformetan eta 2.0 gizarte-sareetan; izan ere, on-line arloan ikuspegiak zabaltzearen aldeko apustua egin du eta **Facebook, Twitter, LinkedIn, Flickr, Youtube eta Slideshare**-n eman du izena.

Barne mailan, lehenengo seihileko honetan, sistematika bat estandarizatzen eta definitzen saiatu dira, aurrekontuaren, ekonomiaren kontrolaren eta jarraipenaren plangintza eraginkorragoa izan dadin. Halaber, aztertu da zer egin proiektuak egoki kudeatzeko, kostuak optimizatu eta kalitatezkoak eta gure interes taldeentzat erabilgarriak diren lanak garatzearen.

1.1. Aginte Taula

FCE	Helburu orokorrak	Adierazlea	2010	2011	2010erako xedea
SAn eskudunak diren entitateak inplikatzea	Sendotzea administrazioari aholkularitza zerbitzua emateko entitate gisa: aitortza	DMAPTAPI eskainitako produktu kopurua	35		25
		Erakundeei eskainitako ikastaro/jardunaldi kopurua	2	2	3
		Zerbitzuen gogobetetze maila	---	---	>85
ITn (administrazioa, lehen sektorea, elikagaien sektorea eta gizartea) beharrei eta	Lehen sektorean eta elikagaien sektorean irabazitako jarrera indartzea: egungo maila sendotzea	ELIKABerrin erregistratutako erabiltzaile kopurua	805	851	870
		Elikagaien sektoreari eskainitako produktu kopurua	8	14	29
		Sektoreari eskainitako ikastaro/jardunaldi kopurua	8	11	20

eskaerei emandako erantzuna			WEB orriko bisita kopurua (batez beste)	11.332	12.566	15000
	IT moduan gizaratean dugun maila: Sarrera		Gobernu Arduraturako Gidan zehaztutako betekizunak zein %tan bete diren	100%	100%	100%
			Gizartearen gogobetetze maila	---	---	>80%
Eskuragarri ditugun baliabideak (pertsonak eta gainontzekoak) era egokienean esleitzea	Barne eraginkortasuna	Kudeaketa	EFQM autoebaluzioaren emaitzak (puntuak)	300	---	>340
			Barne eraginkortasuna: errendimendurako zehaztutako helburuak zein mailatan bete diren	>80%		>95%
		Pertsonak	Prestakuntzarako ordu kopurua	6,4	---	>7,5
		Ekonomia-Finantzak	Pertsonen gogobetetze maila orokorra Konpromisoan hartutako gastua eta aurreikusitako gastuaren zatikia zein %tan bete den	100%	55%	100%

1.2. Emaidza esanguratsuenak

4

Kudeaketa Planaren ondorioz, honako emaitza hauek izan dira nabarmentzekoak:

- **EAEko Elikagaien Segurtasuneko ikerketa lanen Eragiketa Planean** parte hartzea aholkulari tekniko gisa. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Berrikuntza eta Elikagaien Industria Arloak gidatu du plana.
- **EAEko ikertzaileen plataforma-direktorioa** osatzea.
- Elikagai iraunkorrak ekoizteari buruzko ERANET **SUSFOOD**en parte hartzea.
- EAEn arriskuen balioespenaren prozesuari buruz hausnartzea: arriskuei buruzko autonomia mahaia eratzea.
- Elikakatea Kontrolatzeko Autonomia mailako Planaren Koordinaziorako Lantalde Horizontalaren Idazkaritza Teknikoa.
- Life+ proiektu batean parte hartzea: **Cleanfeed** (landare-azpiproduktuak baliatzea animaliak elikatzeko)
- Prestakuntza Lehen mailako sektorearentzat, animalien elikadura arloarentzat eta elikagaien industriarentzat.

2. EMAITZA ESANGURATSUENAK: JARDUERAK

2.1. Arriskuak Balioztatzea

Arriskuak Balioztatzeko Arloan, honako une garrantzitsu hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Arriskuak identifikatzeko mahai tekniko osatzea.
- EAEko Elikagaien Segurtasuneko Zientzia Batzordearen 2011ko zientzia-irizpena: "Balioztapena: Norobirusak eragindako arriskua Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrentzat".

- Egoera-txostena: “Elikagaien bidez Hidrokarbuo Aromatiko Poliziklikoak kontsumitzeko arriskua”.
- Elikakatearen Kontrol Ofizialetako programetako Arriskuen Balioztapena, ikuskaritzen lehentasunak ezartzeko.
- Tailerra: “Arriskuak Balioztatze Metodoa” Zientzia Batzordearentzat eta Elikako teknikarientzat (2011ko maiatzaren 31).
- Hitzarmena IHOBE Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Sozietate Publikoarekin, “Klima aldaketaren eragina Elikagaien Segurtasunean” jardunaldia antolatzeke.
- “Sor litezkeen arriskuak Arriskuen Analisiaren arloan” AZTI-Tecnaliak maiatzaren 19an, Derion, antolatutako Sor Litezkeen Arriskuei buruzko jardunaldian.

2.2. Elikakatea

2.2.1. Abeltzaintza

Abeltzaintza Arloan, honako une garrantzitsu hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Kontsumo Institutuarekin hitzarmena sinatzea, *Anisakisari* eta elikagaien trazabilitateari buruzko material didaktikoa sortzeko.
- Elikakatea Kontrolatzeko Plan Nazionalaren (PNCOCA) barruan, EAEn Abeltzaintzaren Higiene eta Osasunaren Kontrol Ofizialei eta Animalien Ongizatearen Kontrol Ofizialei buruzko programak egiteko talde teknikoetan parte hartzea.
- Elikakatea Kontrolatzeko Plan Nazionalaren (PNCOCA) barruan, EAeko Animaliak Identifikatzeko eta Erregistratzeko Programaren Talde teknikoan parte hartzea.
- Hileko buletinak (InfoAbeltzaintza) egitea eta banatzea. Buletin horietan EAeko abeltzaintzako lehenengo sektoreko eragileentzako berri interesgarriak ematen dira. Guztira, 6 buletin egin dira.
- Animalien ongizateari eta Higiene Praktika Egokiei buruzko hitzaldia ematea, ItsasMendikoik eta Euskolabel S.L.-k antolatutako “*Label* arrautzak eta arrautza ekologikoak ekoiztea” ikastaroan.
- Maiatzaren 31n IMK Derion egin zen “Kaiola aberastuak hegazti-hazkuntzan” jardunaldia antolatzen parte hartzea.
- Elikagaien Segurtasun arloko legediari buruzko laguntza teknikoko txosten eta agiriak egitea Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzarako.
- Aholkularitza eskaintzea lehenengo ekoizpeneko Higiene Praktika Egokien gidaliburuei buruz.
- Osasun Alerta Sarearen (RASVE) bidez jakinarazitako alerta eta jakinarazpenak laburbiltzeko lauhileko txostenak eta 2010eko laburpena idaztea.

- Jardunaldi berezietara joatea:
 - Hegaztien hazkuntzari buruzko jardunaldi profesionalak (Lleida, 2011). Bertan, abere ongizateari buruzko legedia aplikatzeaz eta hegaztien produkzio alternatiboaren beharraz hitz egin zen.

2.2.2. Animalien Elikadura

- EAEn animaliak elikatzekeo lehengaien kalitateari eta segurtasunari buruzko Planean parte hartzea:
 - Lanerako mahai teknikoak dinamizatzea eta koordinatzea.
 - Bat ez etortzeak kontrolatzeko eta kudeatzeko programaren jarraipena egitea.
 - Euskadin lehengaiak kontrolatzeari buruzko artikulua hedapenean parte hartzea.
- Animalien Elikadurari buruzko II. Kongresua (Lleida) Antolatzeko Batzordeko kide izatea eta parte hartzea.
- Aztirekin batera Partzuergoko kide gisa parte hartzea Europa mailako Life+ proiektu batean: Jarduera plan eraginkor eta bideragarria garatzea, industriarik eta elikagaiak banatzetik sortzen diren landareen hondakinak animaliak elikatzean aprobetxatu ahal izateko
- Pentsuen arrisku mapa etengabe eguneratzea. Mapa horrek araudiari eta substantzia kaltegarrien mugei buruzko informazioa du.
- Itsasmendikoirekin batera, pentsu fabrikei eta pentsuen gehigarriari buruzko administrazioko teknikariei zuzendutako prestakuntza ikastaroa antolatzea.
- Europako Alerta Sarearen (RASFF) bidez jakinarazitako jakinarazpenak laburbiltzeko 2010eko txostena eta 2011ko lehenengo lauhilekoko txostena idaztea.
- Hileko buletinak (InfoElikadura) egitea. Buletin horietan EAEko animalien elikadura sektorekoarentzako berri interesgarriak ematen dira. Guztira, 6 buletin egin dira.
- Prestakuntza:
 - On-line ikastaroa: "Animalien elikadura eta elikagaien segurtasuna". COST proiektuari buruzko Nazioarteko Workshopera joatea: "Feed for Health".

2.2.3. Elikagaien industria

Elikagaien Industria Arloan, honako une garrantzitsu hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Honako tailer hauek antolatzea:

“Ezaugarri nutrizionalei eta osasuntsuei buruzko jakinarazpenak”, AZTIrekin batera.

Trazabilitatea okintza eta opilgintza sektoreentzat.

- “Sor litezkeen arriskuei irtenbide praktikoak” jardunaldia antolatzea, AZTIrekin batera.
- Euskadiko Zeliakoen Elkartearen (EZE) eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzahitzarmenaren Batzorde Teknikoko idazkaritza teknikoa.
- Europako Alerta Sarearen (RASFF) bidez, elikagaien arloan jakinarazitako alertak eta jakinarazpenak laburbiltzeko 2010eko txostena eta 2011ko lehenengo lauhilekoko txostena idaztea.
- Txosten teknikoa eta Berezi@ (informazio-buletina) estaldura agente jangarriei buruz.
- Hileko buletinak (InfoElikadura) egitea. Buletin horietan elikagaien industriaren sektorekoarentzako berri interesgarriak ematen dira. Guztira, 6 buletin egin dira.
- Ezaugarri nutrizionalei eta osasuntsuei buruzko artikulu teknikoa.
- Elikagai funtzionalei buruzko atala sortzea kontsumitzaileentzat.
- Elikagaien industriarentzat interesgarriak diren jardunaldi eta ikastaroetara joatea:
 - Elikagai manipulatazaileentzako prestakuntza tailerra.
 - Elikadura Osasungarria izateko Berrikuntzarako III. Foroa.
 - Jardunaldia: “1924/2006 Legea, ezaugarri nutrizionalei eta osasuntsuei buruzkoa, aplikatzea”.

2.2.4. Arrantza eta Akuikultura

Arrantza eta Akuikultura Arloan, honako une garrantzitsu hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Erauzte arrantzaren Lehen Mailako Ekoizpenean Higienearen Kontrol Ofizialerako Programa eta Prozedura osatzea.
- Arrantza sektoreko ikuskaritza zerbitzukoiei prestakuntza eskaintzea, itsasontzietan higienezari buruzko ikuskapenak egiteko.
- Arrantza sektorearentzat informazio triptikoa egitea Erauzte-arrantzaren Lehen Mailako Ekoizpenean Higienearen Kontrol Ofizialerako Programari buruz.

2.3. Elikagaien Segurtasuna Aztertzea

Elikagaien Segurtasuna Aztertze Arloan, honako une garrantzitsu hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Safefoodera barruan dauden proiektuak koordinatzea eta horien jarraipena egitea. Eraitzen berri emateko Copenhagen egindako jardunaldira joatea.

- EAEko Elikagaien Segurtasuneko Ikerketa Lanen Eragiketa Plana garatzean aholkulari gisa parte hartzea.
- Susfooden (elikagai iraunkorrak ekoizteari buruzko eraket) parte hartzea.
- Elikagai Segurtasun arloan Ikerketa Mahaia koordinatzea.
- EAEko Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketarako plataforma sortzea eta abiaraztea.
- EFSAk egindako deialdiak eta beste deialdi batzuk dinamizatzea. 36. artikulua koordinatzea. Zientzia Lankidetzarako 2. Bilkurara joatea: AESAN, ESFA eta Espainiako zerrendako kideak.

2.4. Zaintza Teknologikoa

Zaintza Teknologikorako Arloan, honako une garrantzitsu hauek azpimarratu nahi ditugu:

- WEB orriko edukiak dinamizatzea:
 - Atal berriak sortzea eta zeudenak berriz antolatzea.
 - Kontsumitzaileentzako 5 atal berri sortzea. EAEko kontsumitzaileen elkarteekin adostu dira atal horiek.
 - Web orria aberastea gaur egungo gaiekin eta lan arlo guztietan (7 artikulua, 91 albiste eta 24 jakinarazpen gizarte sareetan).
 - Legediaren datu basea etengabe berritzea eta erabilera hobetzea.
 - Hileko buletinak sortu eta banatzea. Buletin horietan EAEko kontsumitzaileen elkarte nagusientzako berri interesgarriak ematen dira.
- Jardunaldi berezietara joatea:
 - VISIO Kongresua 2011. ELIKAk honako artikulua aurkeztu zuen: *“Implantación VT en pequeñas empresas -dirigido a industrias alimentarias y a explotaciones del sector primario-”* (Kongresuko hitzaldien liburuan dago jasota artikulua).

3. EMAITZA ESANGURATSUENAK: BARNE KUDEAKETA-ANTOLAKETA

3.1. Pertsonak

Prestakuntza:

- 2011ko Prestakuntza Plana. Prestakuntza ezinbestekoa da ELIKAko pertsonen euren eskuduntzak eta ezagutza teknikoak gara ditzaten:

- 2011rako prestakuntzarako diagnostikoa egin da. Bertan, prestakuntza beharrak atzeman dira, eta lehenetasuna eman zaie helburuetan duten eraginagatik egin beharreko haiei.
- Barneko ikastaroa: Optimizazioa eta eraginkortasuna proiektuak gauzatzean.

3.2. Interes taldeak

Ereduak eta aliatuak identifikatzea

- Bilkurak interes taldeekin (elkarteak, sindikatuak, erakundeak eta abar) ELIKA erakunde gisa eta bere estrategia ezagutarazteko.
- Koordinatu, esperientziak trukatu eta baliabideak era egokienean erabiltze aldera, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko gainontzeko elkarte/fundazioekin parte hartzea hiru lantaldeetan:
 - Kalitaterako Taldea
 - Giza Baliabideen Taldea
 - Komunikaziorako Taldea

3.3. Barne hobekuntzarako prozesuak

Prozesukako kudeaketa: lehenengo seihileko honetan lanean jarraitu dugu, batetik, prozesuen kudeaketa sistema zabaltzen; eta, bestetik, ELIKAk pertsonen inplikazioa lortzen. Horrela errazagoa izango baita barneratzea zer den prozesuak kudeatzea.

Honako hauek izan dira nabarmentzeko ekintzak:

- Prozesuen agiri guzti-guztiak (% 100) berrikustea.
- ELIKAk bi pertsona EFMQ autoebaluazioei buruzko ikastaro batera joatea.
- EFMQ ereduari buruzko bare autoebaluazioa egitea.

ELIKAk badu Kudeaketan Bikaintasunarekin Konpromiso Diploma. Horrek baieztatu egiten du erakundeak aurrerapausoak eman dituela eta konpromisoa hartua duela EFMQ ereduari dagokionez. Bigarren seihilekoari begira. Kanpoko kontrastea egitea eskatuko zaio Euskaliti konpromiso diploma balioduntzeko.

3.4. Ezagutza kudeatzea

Gure jardueren berri ematen dugu bereziki web orriaren bidez, bai eta ELIKAberrri albiste buletinaren bidez ere.

- Gure web orriak 12.566 izan ditu hileko 2011ko urtarriletik ekainera bitartean.
- ELIKAberrri buletinak 851 erabiltzaile izan ditu seihileko honetan.

Erakunde barruan zabaltzeaz gain, gure ekintzak kanpoko komunikabideetan ere zabaltzen ditugu; eta horrek inpaktu handia du. Izan ere, seihileko honetan 39 aldiz agertu gara aldizkari berezituetan eta gure interesekoak diren bestelako web orrietan.

3.5. Gobernu arduratsua

3.5.1. Erantzukizun Sozial Korporatiboa

Erantzukizun Sozial Korporatiboa (RSC) honela definitzen da: enpresek egiten duten ekarpen aktiboa eta borondatezkoa, gizartea, ekonomia eta ingurumena hobetzeko.

Elika RSC lantzen ari da epe luzera enpresaren iraunkortasuna ziurtatzeko eta interes taldeentzat eta, oro har, gizartearentzat balorea sortzeko.

Ildo horretatik, ELIKAK bere egin du EAEko sektore publikoko erakunde, elkarte eta fundazioen Gobernu Arduratsuari buruzko Gida.

Honako hauek dira ildo horretan seihileko honetan garatutako ekintzak:

- ELIKA onestea FOARSEren (Enpresaren Gizarte Erantzukizunerako Arabako Foroa) Aholkularitza Kontseiluko kide gisa.

Gidaliburu horren ezartze maila % 95ekoa da.

3.5.2. Arriskuak Kudeatzea

Arriskuak kudeatzea ezinbesteko lan tresna da erakunde batean bere kudeaketa sistema hobetzeko eta helburuak betetzeko; izan ere, arriskuen analisia du oinarri erabakiak hartzeko orduan.

Kudeaketa mota hau aurrera eramateko, erreferentzia gisa hartu da EAEko sektore publikoko erakunde, elkarte eta fundazioen barne kontrola ezartzeko eta garatzeko gidaliburua.

Seihileko honetan, ELIKAK honako une garrantzitsu hauek izan ditu:

- Erakundearen arriskuen mapa gainbegiratzea. Identifikatzea atzemandako arriskuak benetan arrisku nagusiak ote diren, horien arrazoiak eta arrisku horiek gertatuz gero, erakundearen izango luketen eragina.

Gidaliburu horren ezartze maila % 100ekoa da.

3.6. Ekonomia eta aurrekontuaren bilakaera

Lehenengo seihileko honetan gainbegiratu egin da ekonomia eta finantza prozesua: horrela, optimizatu egingo da ekonomia kontrolatzeko eta horren jarraipena egiteko sistema.

